# NORA BIDEA 2021

# ENPRESETAN DUEN GARRANTZIARI BURUZKO INKESTA



bizkaiko berrikuntza behatokia
observatorio de la innovación de bizkaia

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

CÁMARABILBAO

# NORA BIDEA

# 2021



# INTRO

**barrixe - Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak"norabidea, berrikuntzak Bizkaiko enpresetan duen garrantziari buruzko inkesta"** egiten du 2007tik, eta bere helburua da aztertzea Bizkaiko enpresek nolako harremana duten berrikuntzarekin. Hala, enpresa berritzaile eta ez berritzaileen profil bat lortzen da, eta horrek aukera ematen digu Bizkaiko enpresek berrikuntzarekiko duten errealitatea ezagutzeko.

Enpresa berritzaileei dagokienez, txostenak aukera ematen du, besteak beste:

- hobeto finkatzeko enpresa berritzaileen profila
- jakiteko zein berrikuntza-arlotan ari diren lanean
- jakiteko zein ondorio izan dituzten  berrikuntzek enpresan
- jakiteko zein neurritaraino bete diren hasierako igurikimenak.

Enpresa ez berritzaileei dagokienez, txostenak aukera ematen du, besteak beste:

- hobeto ezagutzeko jarduera berritzailerik garatu ez duten enpresen profila, eta berrikuntzatik hurbilago edo urrunago kokatzeko, harekiko duten harremanaren arabera.
- hobeto ezagutzeko berrikuntzara jauzi egiteko premiak eta eragozpenak

## Industria 4.0

Helburutzat harturik jakitea zein neurritaraino sartu diren 4.0 Industriako teknologiak Bizkaiko produkzio arloko enpresetan, 2020an gai horri buruzko hainbat galdera sartu ziren, jakiteko 4.0 Industriako zein teknologia erabiltzen diren gehien Bizkaiko enpresetan eta nolako abantailak ematen dizkieten enpresa horiei.

# EGOERAREN BALORAZIOA ETA ETORKIZUNERAKO GAKOAK

Krisi sanitarioa, krisiak jarduera ekonomikoaren jaitsieran izan dituen ondorioak eta testuinguru horretan gertatutako aldaketa guztiak gorabehera, Bizkaiko enpresen jarduera berritzaileak ez du aldi baterako etenik izan; kontrara, etengabe aldatzen ari den testuinguruak sortutako premia berrietara bideratu du bere jarduera.

Horren erakusgarri da, adibidez, parte-hartzea jaitsi egin dela “Marketin eta salmenta” arloarekin lotutako esparruetaneta jarduera berritzaileak ugaritu egin direla antolakundeari dagozkion prozeduretan, esaterako, pertsonek enpresan duten partaidetza bultzatzeko ekintzak, lehen postuan kokatu direnak.

Adierazle askok behera egin duten arren, nabarmendu behar da beste hainbat hazi egin direla.Hala, ugaritu egin da berrikuntzako helburuen kopurua, eta baita ere antolakundeek berrikuntza-prozesuei ekiteko hartu dituzten erabaki irmoena.Pandemiak aldaketa sozial batean murgildu gaitu, baina horrek enpresen miran jarri du berriro berritzeko beharra, testuinguru ekonomikoa ona ala txarra den kontuan hartu gabe.

Berrikuntzarekin eta jarduera berritzailearen ondorioekin igurikimenak bete diren adierazten duen balantzeari dagokionez, argazkia oso positiboa da, bi adierazleak hazi egin baitira.

duen balantzeari dagokionez, argazkia oso positiboa da, bi adierazleak hazi egin baitira.
Nola ondorioak oso positiboak izan diren,nola igurikimenak aise bete diren etanola berritu ez duten enpresen artean hazi egin den berrikuntzak egin beharraren aldeko iritzia, ziurrenik horri guztiari esker hazi da baita ereBizkaiko enpresek etorkizunean berritzeko duten asmoa, eta arlo guztietan gainera, baina batez erehauetan: enpresa edo merkaturako produktu eta zerbitzu berri edo hobetuak, etaprozesuak. Hain zuzen, azken hori da sail historikoko datu altuena lortu duen adierazlea.

Bukatzeko, 4.0 industriari dagokionez, behera egin du 4.0 industriako teknologiaren bat erabiltzen duten produkzio-industriako enpresen kopuruak, baina lortu dituzten onurak agerikoagoak dira enpresentzat (enpresen % 58k 4 onura edo gehiago aipatu dituzte, eta iaz portzentaje hori % 39,1ekoa zen), eta bereziki aipatzekoa da % 76,5en iritziz “kalitate” handiagoa lortu dutela.

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, baliteke Bizkaiko enpresek lehiakortasun-abantaila bat izatea aurrean dugun etorkizun berrirako.

# METODOLOGIA ALDAKETA

Norabidea 2021 egiteko kontuan hartu dira Osloko 2018ko Eskuliburuaren bertsio berriko definizioak, zeintzuetan kendu egin den berrikuntza teknologikoaren eta ez teknologikoaren arteko bereizketa eta ezarri den berrikuntzak produktuan edota prozesuan egiten direla.

Aldaketa horiei jarraiki, hauek dira aurtengo txosteneko definizio berriak:

- **Berrikuntza** bat da produktu edo negozio-prozesu berri edo hobetu bat (edo bien konbinazio bat), establezimenduak lehenago zeuzkan produktu edo negozio-prozesuetatik oso desberdina dena eta merkatuan sartu dena edo establezimenduan inplementatu dena.

- **Produktuko berrikuntza** da ondasun edo zerbitzu berri edo hobetu bat, enpresak lehenago eskaintzen zituen ondasun edo zerbitzuetatik oso desberdina dena eta merkatuan sartu dena.

- **Prozesuko berrikuntza** da negozio-prozesu berri edo hobetu bat negozioaren funtzio batentzat edo gehiagorentzat, establezimenduak lehenago erabiltzen zuen prozesutik oso desberdina dena eta dagoeneko inplementatu dena.

## ENPRESAK BERRITZAILEAK

4ek 10

BIZKAIKO HAMAR ENPRESATIK LAUEK EKIMEN BERRITZAILEAK EGIN DITU 2020AN.






eta Bizkaiko enpresen %52,3ek aitortu dute berrikuntza jardueraren bat egin dutela azken lau urteotan, etenik gabe edo era intermitentean

## GUTXITU EGIN DA BERRITZEN DUTEN ENPRESEN KOPURUA

BESTEALDE, HAMAR ENPRESATIK IA HIRUK SISTEMATIKOKI BERRITU DUTE URTEETAN ZEHAR.

2017-2020 BITARTEAN MODU JARRAITUAN BERRITU DUTENAK

%29,2

BERRIKUNTZA BERTAN BEHERA UTZI DUTENAK

%10,2

BERRIKUNTZARA IRITSI BERRIAK

%12,9

2017-2020 BITARTEAN BERRITU EZ DUTENAK

%47,7

# ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Enpresen %16,4k neurriak hartzen ditu asmakizunak, berrikuntzak edo ezagutzak babesteko

%16,4 2020
%19,9 2019

Enpresen %20,2k kudeaketaren kontabilitatean identifikatu ditzakete inplementatutako berrikuntzen onurak

%20,2 2020
%24,5 2019

Enpresen %53,8k ez ditu murriztu berrikuntzako helburuak egoera ekonomikoak hala bultzatuta

%53,8 2020
%45,0 2019

Enpresen %14,9ek baditu departamendu teknikoa, I+G+B-ko departamendua edo berrikuntzan jarduteko langileak

%14,9 2020
%7,1 2019

Enpresen %16,3ek partida espezifiko bat dute aurrekontuan berrikuntza jarduueretarako

%16,3 2020
%18,8 2019

Enpresen %62,8ek berrikuntza prozesuak egiten dituzte, edozein dela ere testuinguru ekonomikoa

%62,8 2020
%40,0 2019



# BIZKAIKO BERRIKUNTZAREN INDIZEA

Bizkaiko Berrikuntzaren Indizea sintesi-indize bat da, bere bitartez neurtzeko jarduera berritzailearen sistematizazio-gradua enpresa-jardunaren barruan.




## BERRIKUNTZA MAILA OSO ALTUA DUTEN ENPRESEN PROFILA



50 langile baino gehiago enplegatzen dituzten enpresak.

Beste enpresa batzuekin lankidetzan diharduten enpresak

Beren jarduerak garatzeko Laguntza Publikoak jaso dituzten enpresak.

Enpresa esportatzaileak, fakturazio-portzentajea kontuan hartu gabe

Enpresa sortu berriak eta beren negozio-zikloa hastapenetan dutenak

I+G+B arloko langileak dituzten enpresak.

# JARDUERA BERRITZAILEAREN ERAGINAK




Enpresa berritzaileen %71,1ak inpaktu Handia antzeman dute irizpideren batean



| | | ALTUA | ERTAINA | BAXUA | EZ DA BEHAR |
|---|---|---|---|---|---|
| %87,3 | ONDASUN EDO ZERBITZUEN KALITATE HANDIAGOA | %34,0 | %48,8 | 4,5% | 12,7% |
| %79,6 | PRODUKTU- EDO ZERBITZU-SORTA ZABALTZEA | %26,7% | %43,4 | 9,5% | 20,4% |
| %84,5 | FAKTURAZIOA / MARJINAK / IRABAZIAK HANDITZEA | %11,9% | %58,5 | %14,2 | %15,5 |
| %76,9 | MERKATU BERRIETARA SARTZEA | %16,6% | %41,8 | %18,4 | %23,1 |
| %83,0 | LAN GIROA ETA PRODUKTIBITATEA HOBETZEA | %32,8% | %44,1 | %6,1 | %17,0 |
| %76,4 | ENPLEGU SORKUNTZA | %11,2% | %42,6 | %22,6 | %23,6 |
| %82,9 | ERANTZUN EPEAK MURRIZTEA BEZEROEN PREMIEI EGOKITZEKO | %24,5% | %51,4 | %7,1 | %17,1 |
| %75,3 | ARAUDIETAKO BALDINTZAK BETETZEA | %31,5% | %38,5 | %5,3 | %24,7 |
| %82,6 | MALGUTASUN HANDIAGOA PRODUKZIOAN EDO ZERBITZUAK EMATEKO ORDUAN | %26,2% | %49,5 | %6,9 | %17,4 |
| %56,6 | INGURUMEN-INPAKTU TXIKIAGOA | %16,0% | %33,4 | %7,2 | %43,4 |
| %81,6 | INFORMAZIO-TRUKEA HOBETZEA | %36,6% | %38,7 | %6,2 | %18,4 |
| %56,1 | KOSTU TXIKIAGOAK PRODUZITUTAKO UNITATE BAKOITZEKO | %12,0% | %35,6 | %8,5 | %43,9 |

# BERRIKUNTZA ESPARRUAK

**2020**
22,4

**2019**
%25,6

BERRIKUNTZA
PRODUKTU EDOTA
ZERBITZUETAN

**2020**
%38,3

**2019**
%43,6

BERRIKUNTZA
PROZESUETAN

BERRIKUNTZA PROZESUETAN

%27,9 **2020** %33,3 **2019**

ERRIKUNTZA MARKETIN EDOTA
MERKATURATZE ARLOETAN

%13,9 **2020** %17,9 **2019**

ANTOLAKUNTZAKO BERRIKUNTZA

%20,7 **2020** %21,6 **2019**

# JARDUERA BERRITZAILEAREN ARRAKASTA MAILA



**2020**
%78,8

**2019**
%65,3

Enpresa berritzaileen %78,8ek aski edo guztiz bete dituzte beren helburu edo igurikapenak

INDUSTRIA ETA ENERGIA

%76,7 **2020**
%64,2 **2019**

ERAIKUNTZA

%83,6 **2020**
%59,3 **2019**

MERKATARITZA ETA KONPONKETA

%79,1 **2020**
%57,9 **2019**

ZERBITZUAK

%79,7 **2020**
%71,7 **2019**

# ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA




**norekin?**

| | |
|---|---|
| %65,5 | Sektoreko beste enpresa batzuekin |
| %24,7 | Beste sektore batzuetako enpresekin |
| %19,8 | Ekipo edo teknologia hornitzaileekin |
| %19,7 | Teknologi zentroekin |
| %15,3 | Bezeroekin |

**zertarako?**

| | |
|---|---|
| %39,5 | Produktu edo zerbitzu berriak edo hobetuak diseinatzeko edo garatzeko |
| %39,2 | Produktu edo zerbitzu berrien kontzeptuak eta ideiak sortzeko |
| %28,2 | Merkatu berriak garatzeko |

## LANKIDETZAN JARDUTEKO ARRAZOIAK

| | |
|---|---|
| %50,6 | Ezagutzarekin lotuak |
| %41,6 | Merkatukoak: merkatu berriak irekitzea |
| %24,5 | Ekonomikoak edo kostukoak |
| %17,4 | Antolakuntzakoak |



## LANKIDETZAN EZ JARDUTEKO ARRAZOIAK

| | |
|---|---|
| %82,2 | Ez dago premiarik |
| %7,8 | Ezagutza ez da partekatzen |
| %3,5 | Antolakuntza zurruna |
| %2,7 | Balizko bazkideekin konfiantzarik eza |
| %2,5 | Bazkideak aurkitzeko zailtasunak |
| %2,0 | Kostu ekonomiko handia |
| %1,0 | Covid-aren krisiagatik (erteak, konfinamendua...) |

# HURRENGO 3 URTEETARAKO ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENAK

HANDIAGOA · BERDINA · TXIKIAGOA

| | SALDO | HANDIAGOA | BERDINA | TXIKIAGOA |
|---|---|---|---|---|
| BERRIKUNTZA PRODUKTU ETA ZERBITZUETAN | %50,2 | %50,2 | %45,7 | %2,1 |
| BERRIKUNTZA PROZESUETAN | %46,7 | %48,7 | %49,3 | %2,0 |
| BERRIKUNTZA MARKETIN ETA MERKATURATZE ARLOETAN | %40,5 | %43,0 | %54,5 | %2,5 |
| ANTOLAKUNTZAKO BERRIKUNTZA | %36,1 | %38,0 | %60,1 | %1,9 |
| BERRIKUNTZA LANKIDETZAN | %29,8 | %32,7 | %64,4 | %2,9 |



## BERRIKUNTZAK EGITEKO LAGUNTZA MOTAK

Enpresen % 70,2ek egoera aldatzeko laguntzaren baten beharra aipatzen du

| | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| LAGUNTZA EKONOMIKOA, DIRU-LAGUNTZAK, FINANTZAKETA | %49,9 | %30,2 |
| BERRIKUNTZARAKO ORIENTAZIOA, AHOLKULARITZA | %6,9 | %10,2 |
| LANGILEEN GAITASUNEN HOBEKUNTZA (PRESTAKUNTZA, LANGILE BERRIAK) | %6,0 | %5,6 |
| EZ DUTE LAGUNTZARIK BEHAR, EZ DUTE BERRITZEKO PREMIARIK | %26,7 | %30,1 |

## ENPRESA EZ-BERRITZAILEAK

**2020**
%57,9

**2019**
%51,2



Enpresen %.57,9.ek ez du inolako berrikuntza jarduerarik egin 2020an.

## BERRIKUNTZARAKO OZTOPOAK

Merkatuaren eta lehiakortasuna hobetzeko premiaren epe laburreko ikuspegia da.

**2020** %18,6 — **2019** %7,8

KULTURA BERRITZAILE EZA

Ez dago berritzeko premiarik

**2020** %52,8 — **2019** %51,7

MERKATU MAILAKO OZTOPOAk

Ez dago ondasun eta zerbitzu berritzaileen eskaerarik

**2020** %17,6 — **2019** %15,8

FINANTZAKETA ARLOKO ZAILTASUNAK

Berrikuntzaren kostua egoera ekonomiko ziurgabean

**2020** %9,3

KRISI/PANDEMIA EGOERA

Ekintza berritzailerik egin ez duten enpresen ez dute uste berrikuntza beharrezkoa denik

%74,7 **2020**

%72,3 **2019**

# 4.0 INDUSTRIA

1ek 4

BIZKAIKO INDUSTRIA PRODUKTIBOKO LAU ENPRESATIK 1EK LAN EGIN DU 4.0 INDUSTRIA DEFINITZEN DUTEN TEKNOLOGIETAKOREN BATEKIN




## 4.0 INDUSTRIAKO TEKNOLOGIA BIDERATZAILEEN EZARPEN-MAILA

**%1,9**
**ERREALITATE BIRTUALA**
Teknologia informatikoa erabiliz sortutako ingurunea, bertan murgilduta egotearensentsazioa ematen duena (errealitate birtualeko betaurrekoak edo kaskoa)

**%2,3**
**IKUSMEN ARTIFIZIALA**
Mundu errealeko irudiak hartzea, prozesatzea eta aztertzea informazio gehigarria eman dezaten

**%1,2**
**ERREALITATE HANDITUA**
Elementu artifizialak gure errealitatean txertatzea

**%2,6**
**ROBOTIKA KOLABORATIBOA**
Robotek elkarren artean elkarreragin dezakete, eta segurtasunez lan egin pertsonen ondoan, haiengandik ikasiz.

**%15,7**
**DATUEN INTEGRAZIOA**
Prozesu operatiboetako, balio-kateko (hornitzaileak eta bezeroak) eta departamenduetako datuak integratzea softwarea erabiliz (CRM, ERP, GMAO, e.a.)

**%6,7**
**3D INPRIMAKETA**
Fabrikazio gehigarria edo 3D inprimaketa

**%11,7**
**3D SIMULAZIOAK**
Lantegiko prozesuen modelo birtualak.Aukera ematen du lantegiaren mundu fisikoa erreproduzitzeko (makinak, produktuak eta pertsonak barne) eta ingurune horretan probak egiteko (biki digitalak barne)

**%5,1**
**BIG DATA**
Datu kopuru handiak biltzea produkzio-sistemetatik edo bezero eta hornitzaileengandik, eta datu horiek aztertzea,erabakiak hartzeko prozesuetan laguntzeko

**%11,1**
**CLOUD COMPUTING-A**
Enpresako ordenagailuetan barik lainoan dauden programa eta artxiboekin lan egitea

**%4,8**
**GAUZEN INTERNETA**
Sistema ziberfisikoak, Gauzen Interneta.Elkarren artean konektatutako sistemak, gailuen arteko elkarreragina lortzeko

# 4.0 INDUSTRIAREN ABANTAILAK







BIZKAIKO PRODUKZIO ARLOKO ENPRESEN % 58,0K AIPATU DITUZTE 4.0 INDUSTRIAKO TEKNOLOGIAK TXERTATZEAK EKARRI DIZKIETEN 4 ONURA EDO GEHIAGO; ALDIZ, 2019AN ENPRESEN % 39,2K BAKARRIK AIPATU ZITUZTEN 4 ONURA EDO GEHIAGO.

bizkaiko
berrikuntza
behatokia

observatorio
de la innovación
de bizkaia

# Jakizu zein den Bizkaiko enpresen berrikuntza-egoera

Kontsultatu gure web berria

Aukera izango duzu gure sare sozialekin bat egiteko eta berrikuntzari buruzko argitalpen guztiak partekatzeko. Horrela, hurbilagotik jarraituko dituzu Barrixe-n berrikuntzari buruz argitaratzen diren albiste guztiak.

Harpidetu gure buletinera.

Eskuragarri dagoen txosten luzeago baten bertsio laburtua:

www.barrixe.com




